

# Buletina

08

2024ko uztaila

Pedagogia Pentsioetan

JARDUNBIDE EGOKIAK

DEMOGRAFIA

Prestazioak

Gizarte Aurreikuspeneko Sistemak

Kontingentziak

Bazkideak

Erakundeak

Txostenak eta azterlanak


Inbertsioak

Rankingak

**Euskal Autonomia  
Erkidegoko  
gizarte-aurreikuspen  
osagarriaren  
behatokia**



OGASUN ETA FINANTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y  
FINANZAS



## 65 urte bete baino lehen erretiratzen direnen kopuruak behera egin du

Arau-aldaketek eragindako erretiro-adinaren atzerapenaren ondorioz, gero eta pertsona gutxiagok hartzen dute erretiroa 65 urte bete baino lehen. Euskadin, aurtun (urtarrila-maiatza) 65 urtelekin beherako 3.355 pertsonak hartu dute erretiroa, hau da, 2023an baino % 6,3 gutxiago. Jaitsiera hori Estatu osoan izandakoaren antzekoa da (-% 6,0). Hala ere, aipatu behar da oso kolektibo garrantzitsua dela (oraindik ere): hamar euskal herritarretik lauk 65 urte bete aurretik hartzen dute erretiroa (% 42), Estatuak batez bestekoa aise gaindituz (% 30). Emaita horrek azaltzen du erretiroaren batez besteko adina txikiagoa izatea Euskadin (64,6 urte) Estatuarekin (65,2 urte) alderatuta.

[Informazio gehiago](#)



## BGAEn Dekretuaren berritasun nagusiei buruzko jardunaldia egin da

Joan den ekainaren 14an, "BGAEn eta iraunkortasunaren arloko hainbat dekretu aldatzen dituen Dekretuaren berritasun nagusiak" izeneko jardunaldia egin zen Bilbon. Euskadiko BGAEn Federazioak antolatutako zuzen, eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Aurreikuspen Osagarriko arduradunak (Luis Carlos Izquierdo) eta Finantza Erakundearen Gainbegiratze arduradunak (Jose Antonio Iturrioz) parte hartu zuten hizlari gisa. Jarraian, jardunaldi horretan erabiliko edukiak eskuratu daitezke.

[Informazio gehiago](#)



## Espainiako pentsioen erreformak gastua handituko duela adierazi du Europako Batzordeak

Europako Batzordearen *Ageing Report 2024* argitalpenak, Espainiarako berriazko txostenean, berriki egindako pentsioen erreformak (2021-2023) gastuaren bilakaeran izan duen eragina aztertzen du. Uste da hartutako neurriek BPGren ehuneko 3,3 puntuko igoera ekarriko dutela pentsio publikoen gastuan 2050erako, eta 5 puntuko igoera 2070erako. Igoera horren atzean dauden faktore nagusiak pentsioak KPlaren arabera handitzea eta jasangarritasun-faktorea indargabetzea dira. Hala ere, adierazi du igoera hori partzialki konpentsatuko litzatekeela erretiro atzeratuaren hobari-sistema berriarekin eta erretiro aurreratuagatik koefiziente murriztaileekin, horiek lagunduko bailukete erretiroa hartzeko benetako adina handitzen.


[Informazio gehiago](#)



## Invercoren urteko memoria argitaratu da

Invercoren 2023ko Memoriak pentsio-plan eta -funtsei buruzko kapitulu espezifiko bat jasotzen du, sektoreak Estatuan 2023an izan dituen zifra nagusiei buruzko informazio zehatzarekin. Honako hauek nabarmentzen dira: aktiboen bolumenaren hazkundera (+% 7,4), pentsio-planen errentagarritasun positiboa (+% 8,8) eta enplegu-sistemako ekarpenen hobekuntza (+% 13,4), banakako sisteman egindako ekarpenen murrizketaren aldean (-% 9,7), besteak beste. Horrez gain, kapitulu honek pentsio-funtsen araudiari eta zerga-esparruari buruzko atal bat jasotzen du, bai estatuan bai nazioarte-mailan izandako berritasunekin, finantza jasangarrien gaia barne (SFDR, taxonomia, ESG, etab.).

[Informazio gehiago](#)



## Prestazio definitutik ekarpen definitura: aldaketa Europako herrialdeetan

PensionsEuropek *Road to DC: Understanding the shift* argitaratu du, prestazio definitutik pentsio-planetatik (DB) ekarpen definitutiko erregimenetarako (DC) trantsizioa aztertzen duena EBko estatu kideetan. Era berean, aldaketa hori bultzatzen duten faktoreak aztertzen ditu, baita horiei lotutako aukerak eta arriskuak ere, trantsizio horrek dakarren konplexutasuna azpimarratuz. Azkenik, zenbait printzipio orokor aipatzen ditu aurreikuspen-sistema erresilienteagoak eta egokiagoak garatzeko, ekarpen definitutiko planetara gehiago bideratutako eta, batez ere, enplegu-sistemetan zentratutako agertoki batean.

[Informazio gehiago](#)



ANNUAL REPORT 2023

### EIOParen Urteko Txostena argitaratu da

Aseguruaren eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzak (EIOPA) 2023. urteari dagokion urteko txostena argitaratu du. Bertan, gainbegiratzeko-jarduerari buruzko emaitzak aurkezten dira, eta, oro har, aurreikusitako helburuak eta estrategia orokorra betetzen dira. Txostenak arreta berezia jartzen du gainbegiratzeko-lehentasunetan, Europar Batasuneko ikuskapen-jardueren maila homogeneizatzeko aldera. Halaber, teknologia digitalen ezarpena gainbegiratzeko lana ere jasotzen da, IA eta aseguru irekiak barne, baita finantza-erakundearen segurtasun informatikoa indartzeko lankidetzaren ere. Etorkizunari begira, EIOPAk sektorearen egonkortasunaren eta haren erregulazio egokiaren alde lan egiten jarraituko du.

[Informazio gehiago](#)



14 May 2024  
ESMA34-472-440

### Final Report


Guidelines on funds' names using ESG or sustainability-related terms



### Funtzen izenei buruzko jarraibideak, ESG irizpideei dagokienez

ESMAK (*European Securities and Markets Authority*), EBko finantza-merkatuen erakunde arautzaile eta ikuskatzaileak, dokumentu bat argitaratu berri du aktiboen kudeatzaileentzako jarraibideekin, "iraunkortasuna" edo "ESG" (ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-faktoreak) bezalako terminoen erabilerari buruz, inbertitzaileen artean nahasmena saihesteko. Helburua da modu argian orientatzea kontzeptu horien erabilerari buruz, eta funtsen izenek ez dezatela "greenwashing" (edo "zuritze ekologikoa") eragin. Hala, adibidez, funts horiek gutxienez % 80ko langara iritsi beharko dute ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen dituzten edo inbertsio jasangarriko helburua duten inbertsioetan.

[Informazio gehiago](#)



### EIOPAk ekainean argitaratu du Finantza Egonkortasunari buruzko txostena

EIOParen (Aseguruaren eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzak) Finantza Egonkortasunari buruzko txostena 2024ko ekainean argitaratu zen. Dokumentuaren lehen zatian, berriki izan diren garapen eta arrisku garrantzitsuenei buruzko informazioa jasotzen da, Europako aseguruaren eta berraseguruaren sektorearen kaudimen- eta errentagarritasun-datuak berrikusten dira, eta pentsioen sektorea aztertzen da. Txostenaren bigarren zatian, pentsioen genero-arrakalaren gaia jorratzen da, eta kriptoaaktiboen, kontabilitate banatuko teknologiaren edo finantza deszentralizatuen joera nagusiak azaltzen dira.

[Informazio gehiago](#)



### Pentsio-aktiboak % 8,6 hazi ziren 2023an (aurrerapena, ELGA)

*Pension Markets in Focus 2023* txostenak ELGAko herrialdeetako pentsio-merkatuen bilakaera jasotzen du. Berriki argitaratutako aurrerapen-datuak (2024ko ekainaren 24a) erakusten dutenez, 2023an erretirora bideratutako aktiboak % 8,6 handitu ziren, pentsio-planek errenta finkoko eta errenta aldakorreko zorroetan lortutako irabazien ondorioz. Horrenbestez, pentsio-aktiboak hazkunde-bidera itzuli dira, 2022an erregistratutako atzerakadaren ondoren. Hala ere, adierazi behar da ELGAN erretirora bideratutako aktiboen guztizko bolumena 2021eko amaierako maila baino txikiagoa dela oraindik.

[Informazio gehiago](#)

### Buletin gehiago

>> [Informazio gehiago](#)

[Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Behatokia](#)